

(arteen) Irakaskuntzaren arte baten dekalogo-desira bat

JUAN LUIS MORAZA

“Amets bat izan dezakegu: arbaso bikain bihurtzea” (Laurie Anderson, *The end of the Moon*, 2006)

Edozein irakaskuntzaren oinarrian printzipio ebolutibo bat egon beharko luke, zeinaren arabera edozein ikasle bere irakaslea baino izaki eboluzionatuago bat baita (irakasleak, izatekotan ere, berarentzat etorkizuna baizik ez den ikaslearen orain horretatik zerbait ikastea izan dezake amets); jakintzaren komunitate barneko konplizitate printzipio bat, edozein transmisio-eragin gertatu ahal izan dadin baldintza gisa; eta super-arintasun edo ez-premiazkotasunezko printzipio bat, edozein irakaslek ikaslearentzat baliagarri bihurtzeko izan beharko lukeen helburuan oinarritua, eta hori gertatzen da ikasleak irakaskuntzak sorraraziko lituzkeen baliabideak barneratu dituenean.

Horregatik, nire iradokipena da artearen irakaskuntza irakaskuntzaren artetzat jotzea, zeina honelakoa izan liteke:

1. EGUNGOA (orainean MURGILDUA). Artea orain (sozial, politiko, teknologiko, zientifiko, ekonomiko, kultural, etab.) batean murgildutzat jotzea, hori baitu esparru saihestezina. Eskola ireki batek nolabaiteko erresistentzia egin beharko lioke orainetik “haratago joateari”.
2. AUTONOMOA. Orainean murgilduta bezala finkatu arren, bere kritizismoa dela eta, distantzia gorde behar du eskakizun partikular, diziplinar, industrial, instituzional, teknologiko edo kategorioletatik. Horretarako “aplikagarritasuna”ren eskakizun oro geroratu egin behar ditu (trebeziaren aurka, homologatuaren, doxaren, mimesirako), jakintzarekin harreman zintzo baten izenean.
3. KRITIKOA. Edozein “erresistentzia epistemologiko” gainditzeko gai dena:
 - 3.1. DIALEKTIKOA. Haren edukiak dialektikoak -kategoria-antolakuntzaren forma desberdinen arteko aurrez aurrekoa- bakarrik izan ahalko dira.
 - 3.2. DIALOGIKOA. Desegonkortu egingo luke logosen bakartasuna, eta kanporantz beste bati irekia geratuko litzateke eta barrurantz etena, banatua, irekia.
 - 3.3. DEKONSTRUKTIBOA. Teoria/praktika dogmatiko, historiko edo adamitei aurre egin eta dekonstruitzeko.
 - 3.4. ANTI-ANTIERLATIBISTA. Kritikoa (orainik) gabeko praktika/teoriei dagokienez; kritikoa edozein antierlatibismoren aurrean.
 - 3.5. EPISTEMOLOGIKOKI ARDURATSUA. Barruan kritikoa, bere koherentziaz, bera existitu ahal izateko baldintzez, bere argudiatzeko errez eta faltsazio moldeez egindako galderei erantzuteko gai.
4. ASKOTARIKOA. Praktika/teoria bakoitzetik erabilgarriena aprobeztatzeko gai dena. Nik dogmatika oro neurri batean, nolabait, testuinguru jakin batean, eraginkorra izateko modua bilatuko nuke.

5. KOMPLEXUA (ZEHARKAKOA). Konplexutasuna xede bat da. Bateragarria izan beharko luke “argitasuna”rekin, eta gai izan beharko luke prestakuntza maila desberdinen artean elkar eraginak sortzeko.
6. DIBERTIGARRIA. Irakaskuntza “esanguratsua” (ikasleen munduekiko sentibera) den aldetik, transmisio eta komunikaziozko teknika eraginkor guztiak baliatu behar ditu.
7. PRODUKTIBOA. Produktiboa termino kognitiboetan. Produktiorako lekua izan behar du, eta ez gutxi-asko eguneratutako jakinduriatzeko ustezko egiak transmititzeko lekua. Horrek dikotomia faltsuetan -hala nola teoria/praktika, forma/eduki, etab.- oinarritutako edozein kategoria-sistema baztertzea eskatzen du.
8. SORTZAILEA (PERFORMATIBOA). Ezin da analitikoa izatera mugatu, baizik eta alternatibak diseinatu, sortu eta bultzatu egin behar ditu. “Egitea” da kontua, gauzatzea.
9. BERRIZTAGARRIA (MOLDAKORRA). Une egoki bakoitzean funtsezko eran eraldatzeko prest egongo litzateke. Sentibera izango litzateke testuinguruari dagokionez, eta malgua egiturari dagokionez.
10. AUTOPIETIKOA. Buru-antolatzeke, bere molde propioa aurkitzeko gaitasuna izango luke.
 - 10.1. PLASTIKOA. Neurologiak frogatu du garun bat organikoki eta estrukturalki eraldatzen dela ezagutzeko ekintzan bertan; eta eraldatze hori, eta ezagutzaren edukia halaber, ezagutza hori eskuratzeko moduak erabakitzen dituela. Ikasketa produktibo batek molde plastikoak hartzea eskatzen du, ikasketaren objektuaren izaerari dagozkionak...

Juan Luis Moraza Eskultura Departamentuko irakasle titularra da Vigoko Unibertsitatean; irakasle gonbidatua izan da Marseilako École de Beaux Arts-en, Cuencako Arte Ederren Fakultatean eta Madrileko Estetika Institutuan. CVAre (1979-1985) kide fundatzailea izan zen. Erakusketa bakarkakoak egin eta erakusketa kolektiboetan parte hartu izan du 1980az geroztik. “MA(non É)DONNA, Imágenes de creación, Procreación y anticoncepción” (1993) eta “Seis sexos de la diferencia” (Arteleku, S.S. 1990) liburuak argitaratu ditu, bai saiaketa anitz ere kolaborazio-liburuetan, aldizkari espezializatuetan, katalogoetan eta egunkarietan. *Acción Paralela* aldizkariaren umore eta denbora-pasa sekzioa koordinatu zuen. Mintegiak antolatu eta erakusketetan komisario izan da, besteak beste honako hauetan: “INTERPASIÓN. Sobre Cognición creativa y producción artística en un nuevo espacio social.” (Arteleku. 1999), “Un placer” (Arteleku, San Sebastián, 1992), edo “Indoméstico” (Imatra, 2000).

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopia, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:
http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu